

2018KO URTARRILAREN 25EKO OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN HITZARMENA, ZEINAREN BIDEZ ALDATU EGITEN DEN 2014KO URTARRILAREN 30EAN OSAKIDETZAKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK ONARTUTAKO OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEAK ANTOLATZEKO PLANA, OSAKIDETZAKO A1 LANBIDE-TALDEKO FAKULTATIBO MEDIKO ETA FAKULTATIBO TEKNIKO ESTATUTARIO ETA FUNTZIONARIOEN ERRETIROAREN ETA ZERBITZU AKTIBOAREN LUZAPENAREN ARLOAN

Abenduaren 16ko 55/2003 Legeak, Osasun zerbitzuetako langile estatutarioen Estatutu Markoarenak, nahitaezko erretiroa, oro har, 65 urterekin dela ezartzen du. Hala ere, urte hartatik Gizarte Segurantzaren eta haren prestazioen inguruan eman den arautegiaren bidez, erretiratzeko adina aldatuz joan da. Dena den, Estatutu Markoak ezartzen du zerbitzu aktiboan boluntarioki geratzea gehienez 70 urte bete arte luza daitekeela, egiaztatzen bada langileak beharrezko gaitasun funtzionala duela edo dagozkion jarduerak egin ditzakeela, eta betiere giza baliabideak antolatzeke planen esparruan erakundeak dituen beharren arabera.

Osakidetzako Giza Baliabideak Antolatzeke Planak, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak 2014ko urtarrilaren 30ean onartua, zerbitzu aktiboaren luzapenari eta erretiroari dagozkien aurreikuspenak biltzen ditu 2. Lerroko «Giza baliabideak Osakidetzaren antolakuntza-premien arabera planifikatzea»- 5. zenbakian «Erretiroa eta zerbitzu aktiboaren luzapena»-. Planak ezartzen duen bezala, planaren indarraldia espresuki eta behin-behingoaz luzatu da, orain arte ez baita eman Osakidetzako Administrazio Kontseilua ordeztuko duen plan berririk.

Halaber, planean xedatutakoaren arabera, zerbitzu aktiboa 67 urte bete arte luzatzeko aukera dute. Erretiro-pentsioaren % 100 egiteko beharrezko kotizazio-urteak ez dituzten langileek, ordea, 70 urte bete arte luzatu ahalko dute. Langileria aztertu ostean, ondorioztatu zen ez zegoela antolakuntza-premiarik zerbitzu aktiboa 67 urtetik aurrera luzatzeko.

Plana onartu zenetik hiru urte baino gehiago igaro ondoren, Osasun Planak eta 2013-2016ko aldirako Osakidetzaren Plan Estrategikoak jasotzen duten bezala, Osakidetzak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak aitortzen dute profesionalak direla gure osasun-sistemaren aktibo nagusietako bat. Hori dela eta, proiektuen garapenean aurreratzeko eta sistemaren beharrei erantzuteko maila egokiak mantentzeko helburuarekin, behar bezala prestatutako eta behar beste profesional behar dira. Horretarako, Osakidetzak abian jarri ditu epe labur, erdi eta luzera giza baliabideen beharrak antzemateko eta langileriaren belaunaldi-aldaketari aurre egin ahal izateko plangintza- eta antolamendu-prozesuak. Kontuan hartuko dira, bereziki, behar diren birjartze-tasak bermatzea zailago diren lan-kategoriak.

lido horretan, enplegu publiko egonkor eta kalitatezkoa izateko konpromisoa sartzen da Osasun Sailak XI. legegintzaldirako ezarri dituen lerro estrategikoen barruan. Osakidetzak 2017-2020ko aldirako dituen erronka eta proiektuen ardatz nagusiak, hain zuzen ere, lerro horietan oinarritzen dira, Osakidetzako plantilla funtzionalaren barruan profesional kualifikatu eta integratuak izateko. Eta hori erakusten dute, alde batetik, 2014-2015eko eta 2016-2017ko enplegu-eskaintza publikoek; eta, bestetik, Osakidetzako langileen mugikortasunerako egingo den lekualdaketa-lehiaketa.

Era berean, helburu hori lortzeko, aldi baterako izendapenak eginez, hutsik dauden lanpostu estrukturalak betetzeko neurriak hartzen ari dira, haiek arauz bete arte, lanpostuaren jarraipena bermatzeko. Hala, Osasun Arloko Mahai Sektorialak hartutako konpromisoak beteko dira, hau da, plantilla estrukturalaren % 95, era egonkorrean, langile finko eta ordezkoeak osatuko dute eta behin-behinekotasuna aztertuko da. Hori guztia plantillak egonkortzeko eta behin-behinekotasuna murrizteko jarduera-ildoen barruan sartzen da.

Horregatik, osasun-laguntzaren kalitatearen eta ezagutzaren transmisioaren eremuan, behar-beharrezkoa da langileen belaunaldi-aldaketako prozesuek antolakuntzan eta zerbitzuaren kalitatean duten eragina gutxitzeko neurriak hartzea.

Egoera hori bereziki delikatu da A1 lanbide-taldeko fakultatibo mediko eta fakultatibo teknikoetan; izan ere, talde horretan, 60 urte baino gehiagoko profesionalen ehunekoa altua da. Ondorioz, datozen urteetan, langile horietan asko haziko da erretiro kopurua.

Hori dela eta, langileriaren bilakaera kontuan hartuta, eta profesional berriak sartuko direla – kategoria zehatz batzuetan, bereziki– aurreikusita, beharrezkoa izan da Osakidetzako Giza Baliabideak Antolatzeko Plana berrikustea.

Egoera horri aurre egiteko, erretiroa hartuko duten langileak ordezkatzeko langile kopuru egokia izateko eta herritarren osasun-beharrei erantzungo dizkieten giza baliabideak antolatzeko, beharrezkoa ikusi dugu Osakidetzako Giza Baliabideak Antolatzeko Planak jasotzen duen zerbitzu aktiboaren lehen luzapen-kasua aldatzea; hala, fakultatibo mediko eta fakultatibo teknikoek 68 urtera arte luzatu ahalko dute, boluntarioki, zerbitzu aktiboa. Neurri horrek ez die eragingo Osakidetzari atxikitako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiko langile funtzionarioei, ez eta lan-kontratudun langileei ere; beren arautegian xedatutakoa jarraituko dute.

Fakultatibo mediko eta fakultatibo teknikoek zerbitzu aktiboa 68 urtera arte luzatzeko aukera ematea bi arrazoi nagusi hauen ondorio da: lehenik, ez dago datozen urteetan erretiroagatik bete gabe egongo diren postuak betetzeko behar beste profesional; eta, bigarrenik, Osakidetzako aldi baterako kontratazio-zerrendetan, askotan, ez dago langile librerik, eta, zenbait espezialitatetan, zerrenda horiek agortuta daude.

Horrez gain, erantsi behar da zerbitzu aktiboa luzatzeko aukera ematea Osasunaren Sektore Mahaiaren Aurrehitzarmenak hizpide izan zuela 2017ko urriaren 31n eta 2018ko urtarrilaren 16an egin ziren saioetan; sindikatu-erakundeentzat beharrezkoak ziren ekarpen eta alegazioak egin ziren eta Euskadiko Medikuen Sindikatua ados agertu zen.

Azaldutako guztiagatik eta aplika daitezkeen legezko bestelako oinarriak aplikatuta,

ERABAKI DA

Lehena.- 2014-2016ko aldirako Osakidetza Giza Baliabideak Antolatzeko Plana aldatzea, Osakidetza Administrazio Kontseiluak 2014ko urtarrilaren 30eko saioan onartu zena eta egun indarrean dagoena planaren beraren luzapenaren bitartez (2. Jarduketa Lerroko –«Giza baliabideak Osakidetzaren antolakuntza-premien arabera planifikatzea»– 5. zenbakia –«Erretiroa eta zerbitzu aktiboaren luzapena»–); paragrafo bat gehitu da zerbitzu aktiboan luzapen boluntarioaren a) letran, eta honela geratu da:

«a.- Zerbitzu aktiboaren luzapen boluntarioa, 67 urtera artekoa, interesdunak aurretiaz eskaera eginda; luzapena emateko, langileak egiaztatu beharko du gaitasun funtzionala duela eta dagozkion jarduerak egin ditzakeela.

Hala ere, Osakidetza A1 lanbide-taldeko fakultatibo mediko eta fakultatibo teknikoek, boluntarioki eta aurretik eskaera egin ondoren, 68 urte bete arte luzatu ahalko dute zerbitzu aktiboa; betiere, aurreko paragrafoan adierazten den gaitasun funtzionala egiaztatzen badu».

Halaber, aldatu egin dira Osakidetza Giza Baliabideak Antolatzeko Planaren gainerako alderdiak, zehazki, zerbitzu aktiboa adierazitako baldintzetan luzatzeari buruzkoak, Osakidetza A1 lanbide-taldeko fakultatibo mediko eta fakultatibo tekniko estatutario edo funtzionarioei dagokienez.

Bigarrena.- Hitzarmen honetan hartutako neurriak ez zaizkie aplikatuko Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiko A1 lanbide-taldeko fakultatibo mediko eta fakultatibo tekniko funtzionarioei; bere arautegian xedatutakoa jarraituko dute.


Hirugarrena.- Aipatutako aldaketa 2018ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean; beraz, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera erretiroa hartzeko adina betetzen duten langile fakultatibo mediko eta fakultatibo teknikoek eta, egun horretan, zerbitzu aktiboaren luzapena indarrean duten langileek zerbitzuak eman ahal izango dituzte 68 urte bete arte.

Laugarrena.- 2018. urteko lehen lauhilekoan 67 urte betetzen dituzten fakultatibo mediko eta fakultatibo teknikoek ez dute luzapena 3 hilabete lehenago eskatu beharko.

Bosgarrena.- Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiak Hitzarmen honetan xedatutakoari lotutako aginduak edo ebazpenak eman beharko ditu; eta, zehazki, Osakidetzan indarrean dagoen erretilo-agindua aldatuko du, hitzarmen hau indarrean jartzen denetik aurrera aldatutzat emango dena, Osakidetzako fakultatibo mediko eta fakultatibo tekniko estatutario eta funtzionarioen zerbitzu aktiboaren luzapenari dagokionez.

Seigarrena.- Hitzarmen hau webgune korporatiboan eta Osakidetzaren intranetean argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 25ean



Izpta.: Jon Darpón Sierra

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO PRESIDENTEA